

Miguel Angel García Vieiraren hitzaldia

EnClabeko de Calle jaialdiko zuzendarikidea

“KALE ARTEETAKO PROGRAMAZIOAREN IRIZPIDE ETA PARAMETROAK”

“Mila esker denbora hau partekatzeko gonbidapenagatik. Ez naiz iritsi berria, baina horretatik hurbilago nago bestelako egoera batetik baino. Eta gure kasua, Burgosen, oso urrun dago hemen azaldu denetik, feria, jaialdi eta jai kontzeptutik, alegia; nolabait Tárrega sortu zen modutik eta seinale horiei eusten jarraitzen duen modutik. Tolosatik (Frantzia) hurbil nator, eta Oss-eko *Circatik* nator, Tolosatik oso gertu dago. Karpaz, edo han esaten duten moduan, *chapitoz* beteta dago. Txundituta nator, honelako zerbait ikustera nentorrela bainekien... frantsesengana nindoanean, laguntza arrazoi historikoengatik eta beste baldintza batzuegatik... kudeaketatik sorkuntzara, ba, liluratu egiten nauen posizio batean daude. Larunbatean, kale arteetako egun nazionala ospatu dute. Harrigarria da, ikuskizun pilo bat antolatzen da, eta *Stradda* aldizkarian eta beste argitalpen batzuetan jasotzen da. Oso bereziak dira ikuskizun horiek; batzuk, zuzenean kokatuta, egun horretan gauza horiek egitea egokitu delako, eta ados jarri dira, kale arteko garaian, Frantzia osoan, 2005. urtetik ari baitira arlo horretan lanean. Eta beste jaialdi batzuetan, programazioaren barruan, kontrapuntuak sartu dituzte... *Circaren* jaialdian, bazegoen kontu bat erreferentzia egiten ziona... baina beno, beste hainbat liburuxka eta informazio zeuden, eta haietan, lurralde bakoitzean haren administrazio antolakuntzetan... larunbatean, 26an, gertaera jakin bat izan zen... gogoan dut orain bat oso zehatza... ibiltari batena... zenbait herritatik zazpi emanaldi edo ekintza egiten zituen, goizeko 7:00etatik 24:00ak arte. Beraz, egoera batean daude, eta hori dela-eta, nik zera esan dezaket... ez da guk egin ohi duguna egitea, baina aukera dago... aukera handia dago.

Burgos hemen ondoan dago, hiri txikia da, 2000. urtetik, bereziki, oso entzutetsua dena, hirigunea ekintza gunea izan dadin apustu handia egin duelako. Nire azalpena egiteko, irudi batzuk nekartzan, askoz erakargarriagoa eta entretenigarriagoa delako beti, baina ekipajearen nahasketarekin, nahiz eta gauza handia izan ez, ez dakit... baina ez dut *Pen Drivearen* giltzarria aurkitzen. Beraz, onartuko didazue zuekin elkarbanatu nahi nuena azaltzea... Izan ere, nire helburua zer, zergatik eta zein ikuspuntutatik egiten dugun elkarbanatzea da. Beno, hemen bi pertsona gara, batzuek ezagutzen duzue Irene Moreno, nire lankidea. Ni Miguel Angel Vieira naiz... baina honetan bakoitzaren istorioa ezinbestekoa da... eta ekarpena egiten du, ikuskatzen du, diseinatzen du, eta egiten du... egiten uzten diotenean eta egin ahal duenean. Izan ere, marjina bat dago, norberaren zertxobait dago eta. Hortaz, nik dudak hitza kale antzerkiarekin konpromisoa da. Konpromisoa diodanean, ez dut ezinbestez konpromiso

politikoa esan nahi; konpromisoa diot, hau da, zerbait berezkoa da... bizi dut eta!... neure zati bat da eta! Hortaz, egiten ditugunen moduko gauzak egitea daukagun bitartean, bada, hor jarraituko dugu. Topiko pilo bat duen hiria da Burgos, eta kale antzerkiak topiko horietako asko apurtzen saiatzen da. *Burgosek ez zaitu hotz utziko...* noski ezetz!... *izoztuta utziko zaitu!* Baina Burgosen, kale antzerkia inoiz baino biziago dago. Hortaz, hasi egingo naiz eta barka iezadazue irakurtzea, baina horrela hobeto antolatuko naiz.

Nire azalpenaren laburpena... funtsean nire hitzaldia bi alderdiren inguruan garatuko dut. Hona hemen alderdi horiek: alde batetik, *Jaialdi baten erradiografia, 8 urte ez dira ezer*, eta beste batetik, *Begirada bat, hausnarketa bat*, eta horretan, nik lehen esan dudan konpromiso horrek zerikusi apur bat du. Alde batetik, hau azalduko dut: zer unetan sortzen den, eta nola sortzen den, eta horrek nola eragiten duen hirian eta une jakin batean kultura programa berri bat sortzea. Eta beste batetik, hausnarketa txiki bat egingo dut, nire ikuspegi berezitik eta nire inplikazio mailatik, eta nola sentitzen dudan azalduko dut. Nire oinarrizko egitekoa kaleko ekintzak, Inauteriak, Gabonak, kabalgatak, jai nagusiak eta jai tradizionalak programatzea da; baina ez dago zalantzarik, jaialdia beste gauza bat da niretzat. Eta jaialdiaz hitz egitean, Arteetako Jaialdiari buruz ari naiz. Oraindik, *Artes EnClave de Calle* esaten diogu. Jaialdia beste gauza bat da, nik horretan beste kontzeptu batzuk aurkitzen baititut, jaiak programatzean oso-osorik asetzen ez nindutenak, agian. Beste programak (jai ekintzak, gehienbat, hobeto edo txarrago, txikiagoak edo handiagoak...) bazeuden lehendik ere, baina nik uste dut haietan guztietan asko berri dela. Jaialdiak beste konnotazio batzuk ditu, oso hurbiletik ukitzen didatenak, eta hor, sortze prozesuan parte hartzen dudala sentitzen du. Askatasun handiagoz eta beste irizpide batekin; egia esan, aurrekontuak soilik mugatuta, eta hor beste erantzukizun batzuk... jakin badakit ere hori ez dela guztiz egia, ezta hain sinplea ere. Eta nire istorio pertsonalaren aldetik esan beharra daukat hori guztia naizena izan aurretik egiten dudala, nire baldintzarekin, nire pentsaera, nire trebakuntza eta nire istorio pertsonalarekin. Eta alderdi horretan, zerbait esango dut: ni antzerki mundutik nator, 1976. urtetik ni talde amateurekin mugitzen nintzen, batik bat keinu antzerkian, eta nire bizitzako une jakin batean trebatzea erabaki nuen... Bartzelonara joan nintzen, Institut del Teatre delakora... eta han prestatu nintzen; eta han antzezpenean lizentziatu nintzen, keinu antzerkian, eta egon nintzen... irakasleak izan ditut, eta batzuk ezagutzen dituzue; besteak beste, Pavel Rouva eta Angela Pásky. Milaka ikastarotan hartu dut parte, mundu guztiak bezala... Leo Bassi moduko probokatzaileekin, Marcel Marsórekin, Étienne Decrouxen dizipuluekin (nik ezin izan nuen Étienne garaiz harrapatu), eta Jacques Lecoq moduko beste prestatzaile garrantzitsu batzuekin. Eta oso gogoko izan dut gai hori. Hortaz, noski, nire erraiak, eta badakit zer den egotea... urte askotan egotea... gainean batzuk begira dauden bitartean. Baina orain, beste aldean nago, begiratzen dutenen aldean, goian edo kalean egiten denarekin zerikusia izan nahi dutenen aldean, ordea. Bada, ulertu egin behar duzue baldintza hori, nik gauzak ulertzeko dudan modua ulertze aldera. Zenbait urtez, Burgoseko udal antzerki eskola eratu zuen taldean

egon nintzen; eskola horrek oraindik ere dirau. Eta 1988. urtetik 2000. urtera bitartean izan nintzen eskola horretan. Beno, eta gero, beste arlo batzuetan (kudeaketa, praktika, eta antzerki teknika) trebatzea egokitu zait, baina ikusten duzue, familiak ikuskizunera lotzen nau, zenbait alderditatik. Hortaz, uste dut garrantzitsua dela zentratzea, jakin dezazuen zergatik ikusten ditudan gauzak ikusten ditudan moduan, eta zergatik egiten ditugun gauzak egiten ditugun moduan.

Nire azalpen argi eta garbiari dagokionez, oraintxe bertan jaialdiari buruz, bere istorioari buruz eta sortu zen moduari buruz hitz egingo dut. Interesgarria dela uste dudalako eta, batez ere, oraindik nabarmena den jai nagusiaren prototipetik, ikuskizun tradizioaletatik, jai ekintzetatik, suzirietatik, nazioarteko artista handietatik eta abarretatik harago dagoen jai nagusiaren kontzeptu bat dagoelako... ahal denean, eta bestela nazionalak kontzertu handiekin... ahal izanez gero dena dohainik... eta horietan, Burgosek ere aurrerapauso garrantzitsua eman du kale artean edo animazioan, baina, noski... irailetik oso gutxira, momentu horretatik bereizi, urrundu eta desberdindu beharra zuelako. Eta nire ustez, hor eremu berri batean sartzen gara. Oso neketsua, oso astuna bada ere, eta ordu horiek guztiak kalean emanda ere, bada, zure etxera heltzen zarenean eta jaialdiaren osteko hurrengo astelehenean lanera ez zoazela esaten duzunean, normala dela uste duzulako... bada, bete egin zaitu eta, gainera, hutsune hori uzten dizu... bada, goian zaudeten artistei estreinatu duzue bezala... txaloak gero... premia hori programazioaren aldetik ere izaten duzu, uste dut hori ulertteraza dela.

Jaialdia 2000. urteko irailetik aurrera agertu zen Espainia osoan zabaldutako ezaugarri horietako gertaeren esparruan. Hasiara batean, enkargu bat legez agertu zen, baina guk horrela deitu genion, izen anitz pentsatu ondoren, une hartan haren izaera aurkitu nahian. Izenak helburu gehienak adierazten ditu. Zergatik EnClave de Calle? Espazio publiko natural bat, kalea, egutegiko une jakin batekin lotu behar zen. Denbora eta espazioa ziren premisak. – “Geratuko gara halako lekuan?” moduko zerbait... Laburbilduz: auzoko guztiei gonbidapen bana helarazi, etor zitezten. Eta zergatik arteei buruzkoa? Kaxoi bat eraiki nahi genuelako, hasiera batean, zabala, estilo eta genero guztiekin bete zitekeena, diziplina anitzekoa; eta horretan, besteak beste, udaltzaingoaren autobus batean graffitiak, gaztelu bateko patio batean ikuskizun bat eta dantza garaikideko muntaia bat egin zitezkeen; bere jatorritik kanpo ezer gera ez dadin interesatzen zitzaigun, eta denborak haren ezaugarri bereizleak eta edukiak definitzea nahi genuen, beste faktore batzuk alde batera utzita, haren izaera urteen poderioz lortuko zuelakoan. Enkargu bat esan dudanean, ondo esan dut, udal gobernuak egindako apustu bat zen, programa bat sortzeko, irailen beste zerbait sortzeko. Eginkizunaz pentsatzeaz gain, programa hori txosten baten bidez eta argudio serioekin justifikatzea eskatu ziguten; argot administratiboan ulertzen diren horietako txosten bat, aurrekontuko diru hornidura justifikatuko

zuena, oso garrantzitsua baita aurreko aurrekontuetako ezohizko gastuetarako dirua nonbaitetik atera behar denean. Lanean hasi ginen... gure tokiko esparruko hainbat kontu historikori eta berezkori buruz ikertu behar genuen. Puntu batetik abiatu beharra zegoen, nahiz eta hori, gero, urrunago joateko laguntza elementu bat izan. Ederto, argi zegoen. Irailean eta XIX. mendearen erdialdera arte, Burgoseko herriko jaiak Santo Cristorenak izan ohi ziren. Irailean egiten ziren. Hala ere, badirudi ez zela oso ona udal interesetarako, zenbait arrazoiengatik; besteak beste, klimatologiagatik eta, batik bat, lurraldeko egutegian azkenekoetakoa zelako (horrek eragin kaltegarria zuen salmentetan eta trukeetan). Arrazoi horiek eta beste batzuk direla eta, ekainean egiten hasi ziren, 29 inguruan, San Pedro eta San Pablo jaietan, eta gaur egungo jai nagusia da. Ez da hori begien bistatik galdu behar, hau garrantzitsua da nire ustez... Izan ere, jaialdia bereizi eta desberdindu beharko genuen jai oso berezi batzuetatik, eta jai nagusi ororen berezko tradizioetik eta partaidetzatik. Oro har, jai horiek aurrekontu sail handiagoa dute, eta gainera, neurri handi batean, animazioarekin eta kale arteekin lotutako eskaintza izugarria dute. Gainera, jaialdia baino bi hilabete lehenago ospatzen dira. Horren ostean, irailean sartzeko moduari buruzko hausnarketa dago; jaialdiak, agertzeak zegoenak, ez zuen besteekin batera egin behar, ahal zen neurrian. Alde batetik, hainbat feria eta dimentsio handiagoko beste jaialdi batzuek bezala, profesionalak bilatuko zituelako, baina baita egutegian beste hitzordu bat sartzeko eta lekutxo bat izateko aukera izateko ere. Onuragarria izango litzateke denboraldi bukaeran ospatzen diren hainbat jaialdi begien bistatik ez galtzea, jaialdi horietan – esate baterako, Tárregako jaialdian– estreinatutako edo antzeztutako ikuskizunak eta konpainiak erakartzeko; beti, aurreko asteburuan antzeztutakoak. Horrek aukera berri eta interesgarriak ekarriko lituzke: atzerriko konpainiak izatea, produkzio batzuen bira apur bat luzatzea, etab. Hori bai, hasiera-hasieratik, biztanleentzat, hiriko hiritar heldu eta umeentzat pentsaturiko ideia izan zen, kultura eskaintza berria eta interes berri bat sortzeko...

(Grabazioa falta da)

...gai hori ezagutzera eman da, eta interes handia sortu du, baita benetako zirkuaren egarri den ikusleen leialtasuna ere. Aldi berean, hirian gune berdea eta berezia berreskuratzen laguntzen digu; hau da, Parral parkea. Bertan, pikatxoiak iltzatu ahal dira; interesgarria izango litzateke horretaz eztabaidatzea, azken urteotako kezka baita... Hirigunea itxiz joaten da, eta azkenean, amaitu egingo da. Horrenbestez, jaialdia erdigunetik at zabaltzen da, eta egin dugun saiakerak emaitza ona izan du. Bada, inguruetara zertxobait mugitu behar izanak ez du inolako eraginik izan eskaintzaren arrakastan. Azken emanaldietan, oso aurki, beste pausu bat egin da: urtero, konpainia jakin bat gonbidatzea. Besteak beste, konpainia ezagun hauek aipa ditzaket: Titiriteros de Binefar eta La Tal konpainiak. Horiek dira azken bi urteotan gonbidatu ditugun

konpainiak, haien produkzioen abaniko txikia Burgosen aurkez zezaten. Badago produkzio lokalerako espazio garrantzitsua ere, Burgoseko konpainiek erabakitako apustua. Konpainia horietako gehienek Parrala delakoari lotuta egiten dute lan. Zuetako batzuek ezagutuko duzu: Burgoseko sorkuntza eszenikorako zentro bat da, eta oraindik ere, ahul bada ere, udalak utzitako espazio batean funtzionatzen du. Han, konpainia bakoitzak borrokarako eta ideiak sortzeko bere espazio txikia du. Horrez gain, entseguak egiteko espazio komunak ere badaude. Ez pentsa hori denik gure egoitza kontzeptua; hortik zehar joaten garenean –esaterako, Frantziara–, eta han lan egiteko dituzten espazioak ikustean, ohartzen zara Parralakoa gauza txikia dela, baina hor dago, eta ez balego, asaldagarriagoa litzateke.

Nazioarteko produkzioetarako alderdi nabarmena ere badago. Atzerriko konpainia gehienak frantsesak dira, baina beste herrialde batzuetakoak ere badaude, haien urteko biren arabera eta gertuko jaialdien programazioaren arabera etortzerik badute. Horregatik aipatu dut Tárrega, guri kanpoko konpainiak ekartzeko aukera ematen baitigu. Aukera ona da denboraldi amaieran Tárrega moduko espazioa gertu izatea, nazioarteko konpainiak ekartzeko. Gogoan dut hainbat espediziotan kanadarrak izan ditugula, *Les Sages Fous* delakoaren konpainiak, eta hainbatetan Tárregan izan direnak. Bada, konpainia horiek astebete luzatu ahal izan zuten beren bira, eta Burgoseraino iritsi ziren. Aldez aurretik kalkulatzeko denbora izan zuten, eta bagenuen Burgosen izango zirela hitzartuta. Horixe jaietan egiten saiatu ginen, baina ahalegin jasanezina, eskergabea eta ordainezina da. Gauza horiek koordinatzea, batik bat, jaietan... adibidez, Leonekin batera ditugu jai tradizionalak, eta Leonen ere hasi dira kalean gauza garrantzitsuak egiten, beste era batean eta pixkanaka-pixkanaka. Eta gu, kide mailan, zuzenean programatzaileak direnekin eta norberaren aurrekontuen arabera, ados jartzen saiatzen gara. Leon eta Burgos artean 200 km daudenez, Burgosen egun batean eta Leonen hurrengoan egin ahal badugu, bada, gastuak merkatuko dira, ezta? Leonekin egiten dugu, baita Viladecanekin ere. Hainbat aldiz egin dugu Viladecanekin. Han, uztailaren lehenengo astean izaten da ia beti, eta Burgosen ekainaren amaieran, uztailaren hasieran, momentuen arabera. Esaterako, Malabar konpainiak *Helios* ikuskizuna estreinatu zuen Burgosen eta, gero, Villadecansera joan zen. Horrenbestez, ahalegin hori, egia esateko, oso neketsua da. Horrez gain, Burgosko beste kontzeptu bat nabarmendu nahi dut, jaialdia ezagutzen duzuenok programa jasotzen duzuelako... Tramankuluen plazaren kontzeptua da. Arlo horretan, asko irakatsi digu Trapezi jaialdiko Els Firaires konpiniak. Ni, Trapezira joaten naizen bakoitzean, erlaxatu egiten naiz. Jaialdi horretara joaten naiz eta... hainbat gauza ikasten ditut. Prim plazan, trasteak eta tramankuluak dituzte, besteak beste, eta kontzeptu horrek izugarri berotzen dit gogo. Hortaz, zentzu horretan, asko ikasi dugu, eta bide horretatik sakontzeko asko eman digu Trapezik. Beraz, tramankuluen plaza Córdón plaza da. guk jaialdian birbataiatu egin genuen eta "Tramankuluen Plaza" izena jarri genion. Eta uneko eskaintzaren arabera, ahal ditugun tramankulu guztiak jartzen ditugu: txikiak, bilgarria bera ikuskizun duten ikuskizunak, aktoreek

barruan egiten duten lanaz gain. Ia hasieratik, guk asmakizun, tramankulu eta biziak deritzogunak joan gara biltzen espazioetan, eta ikuskizun interesgarriak, kontatzen dutenagatik eta kontatzen duten lekuagatik... antzerki txikiak, itzalen antzerkia, txotxongilo bitxien antzerkia... aipatu dudan moduan, beste jaialdi batzuetatik —Trapezi, Titirimundi (ildo hori lantzen duena), Belgikako Namur jaialdia (*l'entresort* delakoan oso espezializatua) eta edukiera gutxiko eta iraupen mugatuko beste ikuskizun txiki batzuk) aspaldi ezagutzen dugunaren lan ildoan. Jaialdiaren beste ezaugarri bat hezkuntza eskaintza da. Ikuskizun bitxiak ekartzen saiatzen gara, egitura bitxikoak, hezteko pedagogiaren grinarekin etortzen ez direnak. Irakasleek ikuskizuna kontratatzen dutenean ez bezala, ikuskizun horien helburua hurrei une atsegina igaroaraztea eta haien irudimena piztea da. Eta gero, beste eduki puntual batzuk, egoeraren araberakoak; adibidez, erakusketa bat, Titiriteros de Binefar konpainiaren antzezpena eta liburu baten aurkezpena. Eta orain, amaitzeaz nagoela, hitz egingo dizuet liburu horretaz.

Nire parte hartzea apur bat itxi eta arintzearen, hausnarketa honekin, jaialdi eta hiri, jaialdi vs. Jai, jaialdi eta aukeren kontzeptuetatik ibilbide bat egin nahi izan dut. Gure ibilbide laburraren ikuspegi errealista eskaini eta une hauetan nondik gabiltzan azaldu nahian. Gure zenbakiak zentzu guztietan, 8 urte ez dira ezer baina momentuz borondatea dago, eta gauzak ikusita eta inguruan dugun guztiaren ahuldura aintzat hartuta, proiektuak beste borondate batzuen esku daudenean, pozten nau atzera begiratzeak. EnClave jaialdiak, beharbada, eragina izango du eta, horri esker, *Burgos 2016, Europako Kulturaren Hiriburua* delakoari lagundu, baina hori ez bada horrela heltzen, ez dadila izan saiatu ez garelako. Eskerrik asko.